

Irakurketa estrategiak

Autor: Zabaleta Arangoa, Maider (Licenciada en Psicología, Graduada en Educación Primaria).

Público: Educación. **Materia:** Educación. **Idioma:** Euskera.

Título: Irakurketa estrategiak.

Resumen

Irakurketa, irakurlearen eta testuaren arteko elkarrekintza eta interakzio-prozesua da, non irakurleak irakurtzera eraman dituen helburuak bete nahi dituen. Irakurlea, irakurle aktiboa da, eta munduaz eta errealitateaz ezagutza jakin batzuk ditu. Irakurleak dituen ezagutza motei dagokienez lau motatakoak dira; Lehenik eta behin, ezagutza kontzeptualak daude eta hauetan irakurleak gaiari buruz dakiena sartzen da. Bigarrenik, prozedurazko ezagutzak daude eta hauek irakurleak nolako ezagutzak eta estrategia kognitiboak dituen adierazten dute. Ondoren, irakurtzeko jarrerari buruzko ezagutzak daude, hau da, aldeko jarrera daukan, kontrakoa daukan, pasiboa daukan etab. Eta azkenik, ezagutza linguistikoak daude, hauek ikasleak dituen hiztegi eta joskera mailari egiten diote erreferentzia.

Palabras clave: Irakurketa estrategiak.

Title: Reading strategies.

Abstract

Reading is the interaction and interaction process between the reader and the text, where the reader wants to meet the goals he has read. As regards the type of knowledge readers, there are four types; First of all, there are conceptual knowledge in which readers are familiar with the topic. Secondly, there are procedural knowledge that indicates the reader's knowledge and cognitive strategies. Next, there are knowledge about readiness, that is, a positive attitude, which has the opposite, which is passive, etc. And finally, there are linguistic knowledge that refers to the level of vocabulary and improbability of the students.

Keywords: Reading strategies.

Recibido 2017-11-05; Aceptado 2017-11-14; Publicado 2017-12-25; Código PD: 090021

Irakurketa, irakurlearen eta testuaren arteko elkarrekintza eta interakzio-prozesua da, non irakurleak irakurtzera eraman dituen helburuak bete nahi dituen. Irakurlea, irakurle aktiboa da, eta munduaz eta errealitateaz ezagutza jakin batzuk ditu. Testu ezberdinak irakurtzen doan heinean, dituen ezagutzak aktibatu eta testuari aplikatu beharko dizkio.

Irakurleak dituen ezagutza motei dagokienez lau motatakoak dira; Lehenik eta behin, ezagutza kontzeptualak daude eta hauetan irakurleak gaiari buruz dakiena sartzen da. Bigarrenik, prozedurazko ezagutzak daude eta hauek irakurleak nolako ezagutzak eta estrategia kognitiboak dituen adierazten dute. Ondoren, irakurtzeko jarrerari buruzko ezagutzak daude, hau da, aldeko jarrera daukan, kontrakoa daukan, pasiboa daukan etab. Eta azkenik, ezagutza linguistikoak daude, hauek ikasleak dituen hiztegi eta joskera mailari egiten diote erreferentzia.

Haur batek testu bat irakurtzen duenean, ulermena mugatzen duten hainbat baldintzatzaile ager daitezke. Lehenik eta behin, testu tipologia dago, izan ere, testu mota batzuk besteak baino zailagoak dira bai ulertzeko eta baita lantzeko ere. Bigarrenik, irakurlearen hizkuntza maila dago. Irakurleak zenbat eta hizkuntza maila altuagoa eduki, orduan eta hobe irakurriko eta ulertuko du irakurritakoa. Jarrerari dagokionez, oso garrantzizko aspektua da. Haur bat gogorik edo pasibo moduan irakurtzen bada, seguruenik ez da ia ezertaz ohartuko eta ez du ezer ulertuko gogoak jartzen ez baititu. Jarrera motibazioarekin oso loturik dago, haur batek gogoz irakurriko du, hasteko motibazioa badauka. Irakurketara helburuak eta garrantzia dauka. Izan ere, depende zein helburu bete beharko dituzten, haurrek irakurtzeko garaian aspektu batzuetan edo besteetan zentratuko dira. Azkenik, baldintza afektibo-fisikoek ere eragina daukate prozesu honetan, haur bat bai afektibo edo fisikoki gaizki badago, hasteko gogorik ez dituelako irakurtzeko eta beraz, motibazio falta somatuko zaio.

Aurretik esan bezala, irakurketa prozesu bat da, eta Solé-k honen zeregina antolatzeko "Irakurketa partekatuko zereginak" proposatzen ditu. Hau da, ikaslearen ezaguera multzoaren zati izan beharko diren estrategia ezberdinak azaltzen ditu, gero ikasleek hauek beren kabuz irakurtzeko garaian erabil ditzaten. Estrategia hauek zailtasun ezberdinetako irakurketa-egoera ezberdinetan gertatzen dira eta irakasleak, bere ikasleak irakurketaren eta prozesuaren beraren prestakuntza-ebaluazioa egiteko baliabide eraginkorrena dira idazlearen iritziz.

Idazleak ikaslea irakurle aktiboa izan beharko dela azpimarratzen du behin eta berriz. Izan ere, testua irakurtzen duen heinean, horren interpretazioa eratuz joan beharko da. Lan hau burutu ahal izateko, irakurketa gauzatzen den bitartean ez

ezik irakurketaren aurretik eta ondoren ere badaude estrategia zehatz batzuk ikasleek barneratu eta gero beren kabuz erabil daitezkeenak ere.

Lehenik eta behin, Solé-k irakurri baino lehen erabili beharreko estrategia batzuk proposatzen ditu. Irakurleak ezer baino lehen, irakurri behar duena zertarako irakurri nahi duen galdetu beharko lioke bere buruari. Gero testuari begirada orokor bat eman beharko lioke, euskara mota zein den aztertzeko etab. Ondoren, izenburua, azpitoluak, irudiak, argazkiak etab. aztertu beharko lituzke. Testuaren egiturari buruzko hipotesi bat egitea ez legoke batere gaizki. Burutu behar duen irakurketaren helburua zein den argi eduki beharko luke, eta azkenik, testua kokatu beharko luke.

Irakurketa gauzatzen den bitartean, irakurlearen ulermenezko ahalegin gehiena gertatzen da, eta estrategia ezberdinak irakurleak bere ulermena erregula dezan daude pentsatuta. Irakasleek eta ikasleek testu bat edo testuaren zati bat irakurri behar dutenean, isilik edo ozenki irakurri dezakete zati hori. Irakurri ondoren, irakasleak ikasleak gidatzen ditu lau estrategiatan oinarrituz.

Hasteko, taldeari irakurritakoari buruzko laburpena egiteaz arduratzen da, hau da, irakurritakoa laburki azaltzen die, eta honen adostasuna eskatzen du. Gero argibideak edo azalpenak eska ditzake, testuak agertzen dituen zalantza jakin batzuei buruz. Zalantzak argitzea norberaren buruari testua ulertu den ala ez galdetzea izango litzateke. Ondoren, umeei galdera bat edo batzuk egiten dizkie eta hauen erantzuna noski testuan aurkitu beharko dituzte. Jarduera hau eta gero, ondoren irakurriko denari buruzko iragarpenak ezartzen ditu, hau da, testuan aurkituko denari buruzko neurriko eta arrazoimenezko hipotesiak ezartzea. Horrela, zikloa berriro hasiko litzateke, baina oraingoan beste "arduradun" bat aukeratuz, irakasleak beti paper hori burutu ez dezan. Arduraduna aukeratzeko orduan, talde txikiak edo bikoteak antolatzea egokia litzateke, horrela, partaide bakoitzak eginkizun gidatzailea hartzeko.

Bestetik, gomendagarria izango litzateke sekuentzia edo hurrenkera finko bat beti ez jarraitzea, eta partaideek gehiago parte hartzeko ere, modu ezberdinak planteatzea beraiek ere galderak egin ditzaten, ez soilik arduradunek etab. Solé-k aipatzen duenez, irakurketa prozesua irakurketa-egoera ezberdinetara, irakurketan parte hartzen duten ikasleetara eta ezarri diren helburuetara egokitzea beharrezkoa da. Nahitaezkoz jotzen duen beste aspektu bat irakurketaren zeregina behar bezala planifikatzea da, baita ikasleak behatzeko aukera egotea ere, irakasleek hauek momentu oro ebaluatu ahal izateko.

Azkenik, irakurri ondorengo estrategiak proposatzen ditu egileak. Alde batetik gainerako irakurleekin edukiaz eta testuaren egituraz hitz egin daiteke. Testuko komunikagarritasun ahalmena ebaluatu daiteke. Bestetik, zuzentasun gramatikala iritzia eman daiteke. Gero, irakurleak irakurritako informaziotik garrantzitsuena aukeratu eta honekin, mapa kontzeptuala, eskema edota diagrama bat osatu dezake. Honen ondoren, sintetizatu, laburbildu eta jaso duen ezagutza berriari buruz informazio gehiago lortu dezake, eta ondoren hau gainontzekoei pasatu. Gaiari buruz ere galdera berriak proposatu ditzake eta azkenik, ahoz testuak dioenez eta testuari buruz irakurle guztiek daukaten iritzia eztabaidatu daiteke.

Irakurtzeko garaian hurrek dituzten zailtasunei erreferentzia eginez, ozen irakurtzean zailtasuna batzuk agertzen dira, eta isilean irakurtzean, aldiz, beste batzuk. Ume batek ozen irakurtzen duenean, normalean zailtasunak bi motatakoak izan ohi dira; batetik, zailtasunak testua osatzen duten hitzak ezagutu eta ahoskatzeko orduan, eta bestetik etenak eta zalantzak, bai ulertzen ez dutelako, eta baita deskodetzeko arazoak dituztelako ere. Izan ere, lehen aipaturiko ikerketan ondorioztatu izan dutenaren arabera, testuari "lotuegi" dauden umeei irakurtzeko orduan eten asko izaten dituzte. Hau, idatzizko testu bat ongi ulertzeko, lehenago ahoz ongi irakurtzea beharrezkoa dela betidanik uste izan delako gertatzen da, eta hurrek hau barneratu dute baita ere. Kasu hauetan, haurrari testua deskodetzeko eskatu beharko zaio, hitzez hitz ongi ahoskatzen eta hauen esanahia ongi ikas dezan.

Halaber, eskoletan bereziki irakurketa isila lantzen da eta kasu honetan, ikasleek irakasleengana jotzen dute askotan, hitz batzuekin oztoporen bat aurkitzen dutenean normalean. Nahiz eta irakasleari galdetzea txarra ez izan, ohitura txar batean bihurtzen da soilik irtenbide hau erabiltzen badute. Egileak dioenaren arabera, haurrei beren kabuz ulertzen ez dituzten hitzak azpimarratzen eta hauei buruzko informazioa bila dezaten utzi beharko diegu. Aipaturiko ikerketan, adibidez, hurrek ulertzen ez zituzten hitzak azpimarratzen zituzten, baina irakurtzen zihoazen heinean, hitz horien esanahi koherentea edo orokorrean irakurritakoaren mezua ulertzen zutela atera zen.

Bukatzeko esan, irakaslea momentuoro ikasleen eredia dela. Alde batetik irakasleak parrafo bakoitzaren amaieran, ikasleei hauei buruzko iragarpenak egitea egokia litzateke. Bestetik, bere zalantzak ere erakutsi beharko lituzke, galderak, zer nola arazoak izan dituen irakurtzen zihoan heinean etab.